



JAZZINEMA

2019

UZTAILA / JULIO



TABAKALERA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO
BILBAO

Informazio gehiago | Más información

www.filmotecavasca.com

Antolatzailea | Organizador

EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECAS VASCA



Kolaboratzaileak | Colaboradores

54 Heineken
JAZZALDIA



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

GETXOKO
NAZIOARTEKO
JAZZALDIA

TABAKALERA
T

BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO

IKURRAK SÍMBOLOS

	Zuzendaritza Dirección
	Urtea Año
	Herrialdea País
	Ekoizpena Producción
	Gidoia Guión
	Argazkia Fotografía
	Musika Música
	Antzezleak Intérpretes
	Iraupena Duración

AURKIBIDEA

ÍNDICE

AURKEZPENA PRESENTACIÓN	4-5
ELLA FITZGERALD: JUST ONE OF THOSE THINGS (Leslie Woodhead, 2019)	6
TOUCH OF EVIL Gaizkiaren ukitua (Orson Welles, 1958)	7
EGUTEGIA CALENDARIO	8-9
LES LIAISONS DANGEREUSES Las relaciones peligrosas (Roger Vadim, 1959)	10
À BOUT DE SOUFFLE Al final de la escapada (Jean-Luc Godard, 1960)	11
UN TÉMOIN DANS LA VILLE Sólo un testigo (Édouard Molinaro, 1959)	12
RADIO DAYS Días de radio (Woody Allen, 1987)	13
INFORMAZIO BALIAGARRIA INFORMACIÓN PRÁCTICA	14

JAZZINEMA 4

Zoria izango da. 1927an, *The Jazz Singer* (*El cantor de jazz*) filmarekin soinudun zinema sortu zen, eta, izenburuak berak ere **jazzera** garamatza. Euskadiko Filmategiak antolatutako JAZZINEMAren aurreko edizioetan, bi diziplina artistiko horien arteko harreman pribilegiatuaren berri ematen duten filmak programatu dira: **zinema** eta **jazza**, **jazza** eta **zinema**. Hiru ardatz nagusik eusten diote ideia horren funtsari, eta adibide ugari daude programatutakoen artean: soinu-bandan **jazza** nabarmena duten filmak (*Ascenseur pour l'échafaud* –*Ascensor para el cadalso*– 1958); **jazz**-musikariak protagonista dituzten filmak (*Bird*, 1988), eta jazzaren eragin nabarmena duten filmak (*The Connection*, 1961). Batzuetan, hiru ardatzetatik zerbait dute filmek. Zoria izango da. Euskal Herrian zinemarako eta jazzerako zaletasun handia dago. Eta egiaztatu duguna da, sarritan, zaleek biak dituztela maite. Zoria izango da.

JAZZINEMAren laugarren edizio honetako nobedade nagusia da Bilbon ere egongo garela, Arte Ederren Museoa, beti bezala, eta, horrez gainera, Getxoko Nazioarteko Jazzaldia-ekin elkarlanean arituko garela lehen aldiz. Beste albiste bat da fokua zinema frantsesean ere jarri nahi izan dugula, oso garrantzitsua izan baitzen. Hori ere zoria izango da... *À bout de souffle* (*Al final de la escapada*, Jean-Luc Godard, 1960) ez da Nouvelle Vague mugimenduaren sorrerako film bat soilik; horrez gainera, Martial Solalen soinu-bandak, filmaren muntaia eta haren arimak berak **jazza** eguz-

ki duen planeta-sistema batera eramaten gaituzte. Roger Vadimi askok ez zioten barkatu Choderlos de Laclos klasikoarekin ausartu izana (*Les liaisons dangereuses*), nahiz eta Jeanne Moreau, Gérard Philipe, Jean-Louis Trintignant eta Boris Vian idazle eta **jazz**-musikaria egon aktore-zerrendan. Gainera, Art Blakey, Duke Jordan eta Thelonious Monk musikariek ere parte hartu zuten zoinu-bandan, merezi du filma berriro ikustea. **Jazzak** eta **zinemak** sarritan ontzi komunikatiboak osatu badituzte, are estuagoa da **jazzaren** eta **zinema** beltzaren arteko harremana. *Un témoin dans la ville* filman (*Sólo un testigo*, Édouard Molinaro, 1959), Barney Wilenen musikak biziagotu egiten du filmeko jazarpen-eszena; Lino Ventura-ren interpretazioa benetan distiratsua da zinemagintza beltz frantziarreko film honetan.

Atlantikoa zeharkatuta, ezer gutxi gaineratu diezaiokegu *Touch of Evil* (*Gaizkiaren ukitua*, Orson Welles, 1958) maisulanari buruz esan denari; Henry Mancini handiaren **jazz**-musika latindarrak osatzen du haren soinu-banda. Woody Allenen zinema **jazzik** gabe ezin dela ulertu argi geratu zen berriz *Radio Days* (*Días de radio*, 1987) filman, non New Yorkeko 40ko hamarkadako irrati bidez entzuten baitugu musika. Amaitzeko, estreinaldi bat: *Ella Fitzgerald: Just One of Those Things* (2019): britainiar dokumentalista ospetsuenetako batek (Leslie Woodhead) **jazz**-izarrari buruz egindako filma. **Jazza** eta **zinema**, **zinema** eta **jazza**. Hemen, Euskal Herrian, Euskadiko Filmategiaren eskutik. Zoria izango da...

JAZZINEMA 4

Será el azar. En 1927 con *El cantor de jazz* irrumpe el **cine** sonoro y hasta en el título se nos remite al **jazz**. En las anteriores ediciones de JAZZINEMA que ha organizado la Filmoteca Vasca, se han programado películas que dan cuenta de la privilegiada relación existente entre estas dos disciplinas artísticas: **cine** y **jazz**, **jazz** y **cine**. Tres grandes ejes son los que sostienen la naturaleza misma de la idea y abundan los ejemplos ya programados: **cine** que incluye **jazz** en su banda sonora de manera relevante (*Ascensor para el cadalso*, 1958), **cine** que tiene a músicos de **jazz** como protagonistas (*Bird*, 1988) y **cine** en cuya narrativa el **jazz** parece haber ejercido una notable influencia (*The Connection*, 1961). En algunos de ellos, será el azar, hay algo de los tres ejes. En el País Vasco hay grandes pasiones por el cine y el jazz. Y lo que hemos comprobado, será el azar, es que a menudo los amantes lo son de ambos.

La gran novedad de esta cuarta edición de JAZZINEMA es que estaremos también en Bilbao, en el Museo de Bellas Artes, como siempre, y que colaboramos por primera vez también con el Festival Internacional de Jazz de Getxo. Otra noticia es que hemos querido poner el foco también en el cine francés, que tan importante fue, será el azar, a la hora de introducir en sus bandas sonoras a músicos de jazz: *Al final de la escapada* (Jean-Luc Godard, 1960) no solo es una película fundacional de la Nouvelle Vague, sino que la banda sonora de Martial Solal, su propio montaje y algo en su

alma nos trasladan como espectadores a un sistema planetario cuyo sol es el **jazz**. A Roger Vadim muchos no le perdonaron que se atreviera con el clásico de Choderlos de Laclos (*Les liaisons dangereuses*) pese a que contara con Jeanne Moreau, Gérard Philipe, Jean-Louis Trintignant o incluso el escritor y músico de **jazz** Boris Vian en el reparto. Que además en la música estuvieran Art Blakey, Duke Jordan y Thelonious Monk hace que merezca la pena revisitar la película. Si el **jazz** y el **cine** han tenido a menudo vasos comunicantes, lo del **jazz** y el **cine** negro ya es cuestión de vidas paralelas. En *Sólo un testigo* (Édouard Molinaro, 1959) la música de Barney Wilen da vida a una persecución donde Lino Ventura brilla con luz propia en una película de puro cine negro francés.

Cruzando el Atlántico, poco cabe añadir a lo ya dicho sobre la obra maestra *Sed de mal* (Orson Welles, 1958), con música de **jazz** latino de Henry Mancini. Que es imposible comprender el cine de Woody Allen sin el **jazz** queda una vez más claro en *Días de radio* (1987), donde la música suena además a través de las radios de Nueva York en los años 40. Para terminar, un estreno: *Ella Fitzgerald: Just One of Those Things* (2019), una película sobre la estrella del **jazz** realizada por uno de los documentalistas británicos de mayor prestigio, Leslie Woodhead. **Jazz** y **cine**, **cine** y **jazz**. Aquí, en el País Vasco, y de mano de la Filmoteca Vasca. Será el azar...



ELLA FITZGERALD: JUST ONE OF THOSE THINGS

Estreinaldia
Estreno

04 UZTAILA
JULIO

TABAKALERA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

19:00

05 UZTAILA
JULIO

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
BILBAO



Leslie Woodhead



2019



Erresuma Batua, AEB/Reino
Unido, EUA



Eagle Rock Films



Tony Bennett, Jamie Cullum,
Laura Mvula, Johnny Mathis,
Smokey Robinson, Cleo
Laine, Andre Previn, Norma
Miller, Patti Austin, Izsak
Perlman, Margo Jefferson, Will
Friedwald, Ray Brown Jr.



90'

Ella Fitzgeralden bizitzaren aztarnei jarraituta, film doku-
mental honek aztertzen du nolako bidea egin zuen haren mu-
sikak mende zalapartatsu baten soinu-banda bilakatu arte.
Harlem auzoko Apollo antzokian egindako talentu-lehiaketa
batetik abiatuta, Ellak bost hamarkadetan zehar egindako bi-
daia miresgarria jarraitzen du filmak, eta erakusten du nola
islatu zituen bere musikak garaiko grinak eta gatazkak.

Ohiko biopic arruntaz harago, irudiak eta musika baliatuta,
garai hartako giroa dakarkigu, eta Ellaren ibilbide apartaren
testuingurua azaltzen du; Smokey Robinson, Jamie Cullum,
Tony Bennett eta Norma Miler artistei egindako elkarrizke-
ten bitartez. Jazzaren Olinpoko jainkosa baten eta, oro har,
XX. mendeko musikaren ahotsa.

Al trazar la historia de la vida de Ella Fitzgerald, esta película docu-
mental explora cómo su música se convirtió en la banda sonora
de un siglo tumultuoso. Partiendo de un concurso de talento en el
teatro Apollo de Harlem, la película rastrea el extraordinario viaje
de Ella a lo largo de cinco décadas, al tiempo que muestra las pa-
siones y conflictos reflejados en su música y en su vida.

Más allá del biopic convencional, la película evoca, mediante el em-
pleo de imágenes y música, el ambiente de aquella época y da vida
al contexto de la singular carrera de Ella, por medio de las entrevis-
tas realizadas a Smokey Robinson, Jamie Cullum, Tony Bennett y
Norma Miler. La voz de una diosa del olimpo del jazz y de la música
del siglo XX en general.

**Jatorrizko bertsioa ingelesez,
gastelaniazko azpitituluekin.**

Versión original en inglés,
con subtítulos en castellano.



TOUCH OF EVIL

GAIZKIAREN UKITUA

11 UZTAILA
JULIO

TABAKALERA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

19:00

06 UZTAILA
JULIO

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
BILBAO

Orson Welles

1958

AEB/EUA

Universal International Pictures

Orson Welles (Eleberria/Novela: *Badge of Evil*, Whit Masterson)

Russell Metty

Henry Mancini

Charlton Heston, Janet Leigh,
Orson Welles, Marlene Dietrich,
Joseph Calleia, Zsa Zsa Gabor

110'

Narkotrafikoaren alorreko poliziakide bat Mexikoko mugara iritsi da emaztearekin, lehergailu batek ez-tanda egin duen unean, hain zuzen. Berehala, bere gain hartuko du ikerketaren ardura, Quinlan tokiko poliziaren buruzagiarekin elkarlanean, zeina oso ezaguna baita metodo gogor eta ez oso ortodoxoak erabiltzeagatik. Izugarritzko borroka piztuko da bi gizonen artean, biek baitituzte bata bestearen aurkako frogak. Welles zuzendariaren maisulan honek Henry Mancini handiaren musika du gainera, eta jazz latinoari egindako keinuz beteta dago.

Un agente de la policía de narcóticos llega a la frontera mexicana con su esposa justo en el momento en que explota una bomba. Inmediatamente se hace cargo de la investigación contando con la colaboración de Quinlan, el jefe de la policía local, muy conocido en la zona por sus métodos expeditivos y poco ortodoxos. Una lucha feroz se desata entre los dos hombres, debido a que cada uno de ellos tiene pruebas contra el otro. Obra maestra de Welles con música del gran Henry Mancini llena de guiños al jazz latino.

Jatorrizko bertsioa ingelesez, euskarazko azpitituluekin.

Versión original en inglés,
con subtítulos en euskera.


BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO Auditoriuma/Auditorio	Eguna Día	Ordua Hora	Bertsioa Versión	Azpititulua Súbtítulos	Aurkezpena Presentación
ELLA FITZGERALD: JUST ONE OF THOSE THINGS (Leslie Woodhead, 2019) ESTREINALDIA / ESTRENO	2019/07/05	19:00	Ingelesa Inglés	Gaztelania Castellano	
TOUCH OF EVIL Gaizkiaren ukitua (Orson Welles, 1958)	2019/07/06	19:00	Ingelesa Inglés	Euskara Euskera	
LES LIAISONS DANGEREUSES Las relaciones peligrosas (Roger Vadim, 1959)	2019/07/12	19:00	Frantsesa Francés	Gaztelania Castellano	Iñaki Saitua*
À BOUT DE SOUFFLE Al final de la escapada (Jean-Luc Godard, 1960)	2019/07/13	19:00	Frantsesa Francés	Gaztelania Castellano	
UN TÉMOIN DANS LA VILLE Sólo un testigo (Édouard Molinaro, 1959)	2019/07/20	19:00	Frantsesa Francés	Gaztelania Castellano	
RADIO DAYS Días de radio (Woody Allen, 1987)	2019/07/27	19:00	Ingelesa Inglés	Gaztelania Castellano	

* **Getxoko Jazzaldiko zuzendaria**
Director del Festival de Jazz de Getxo

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

TABAKALERA 1 Zinema Aretoa Sala de Cine 1	Eguna Día	Ordua Hora	Bertsioa Versión	Azpitituluak Súbtítulos	Aurkezpena Presentación
ELLA FITZGERALD: JUST ONE OF THOSE THINGS (Leslie Woodhead, 2019) ESTREINALDIA / ESTRENO	2019/07/04	19:00	Ingelesa Inglés	Gaztelania Castellano	
TOUCH OF EVIL Gaizkiaren ukitua (Orson Welles, 1958)	2019/07/11	19:00	Ingelesa Inglés	Euskara Euskera	
LES LIAISONS DANGEREUSES Las relaciones peligrosas (Roger Vadim, 1959)	2019/07/18	19:00	Frantsesa Francés	Gaztelania Castellano	
À BOUT DE SOUFFLE Al final de la escapada (Jean-Luc Godard, 1960)	2019/07/19	19:00	Frantsesa Francés	Gaztelania Castellano	
UN TÉMOIN DANS LA VILLE Sólo un testigo (Édouard Molinaro, 1959)	2019/07/25	19:00	Frantsesa Francés	Gaztelania Castellano	Quim Casas*
RADIO DAYS Días de radio (Woody Allen, 1987)	2019/07/26	19:00	Ingelesa Inglés	Gaztelania Castellano	Quim Casas*

* Zinema eta musika kritikaria, eta Donostia Zinemaldiko Hautespen-batzordeko kidea
Crítico de cine y música, y miembro del Comité de Selección del Festival de San Sebastián



LES LIAISONS DANGEREUSES

LAS RELACIONES PELIGROSAS

 **18** UZTAILA
JULIO

 **TABAKALERA**
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

 **19:00**

 **12** UZTAILA
JULIO

 **BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA**
BILBAO

Aurkezpena | Presentación
Iñaki Saitua*

 Roger Vadim

 1959

 Frantzia/Francia

 Les Films Marceau-Cocinor

 Claude Brulé, Roger Vadim, Roger Vailland (Eleberria/Novela: Pierre Choderlos de Laclos)

 Marcel Grignon

 Thelonious Monk, Duke Jordan, James Campbell'

 Jeanne Moreau, Gérard Philipe, Annette Vadim, Madeleine Lambert, Jeanne Valérie, Nicolas Vogel, Boris Vian

 105'

Juliette eta Valmont ezohiko senar-emazteak dira. Hala adostuta, maitaleak dituzte biek ala biek, baina sekretupean gordeko dute beti informazio hori. Lagunen eta ezagunen aurrean, Valmont senar leiala da; Juliette ere emakume zintzo eta leiala da itxuraz, eta emakume lotsatiaren itxurak egiten ditu beti, sexu-konturen bat denean tartean. Pierre Choderlos de Laclos idazlearen eleberrri ospetsuan dago oinarritua, eta 60. hamarkadan girotuta dago. Thelonious Monkek zinemarako konposatu zuen soinu-banda bakarra du filmak: Barney Wilen saxoan, eta Art Blakeyren Jazz Messengers taldearen doinu ezin ederragoak.

Juliette y Valmont forman un matrimonio poco convencional. De mutuo acuerdo, los dos tienen amantes, aunque lo mantienen en el más absoluto secreto. Ante amigos y conocidos, Valmont es un marido fiel; Juliette, por su parte, aparenta ser una mujer honesta, fiel y muy pudorosa cuando se trata cualquier asunto de índole sexual. Adaptación de la famosa novela de Pierre Choderlos de Laclos, ambientada en los años 60. Única música para cine compuesta por Thelonious Monk, con Barney Wilen al saxo y los Jazz Messengers de Art Blakey inspiradísimo.

Jatorrizko bertsioa frantsesez, gaztelaniazko azpitituluekin.

Versión original en francés, con subtítulos en castellano.

* **Getxoko Jazzaldiko zuzendaria**
Director del Festival de Jazz de Getxo



À BOUT DE SOUFFLE

AL FINAL DE LA ESCAPADA

19 UZTAILA
JULIO

TABAKALERA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

19:00

13 UZTAILA
JULIO

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
BILBAO

Jean-Luc Godard

1960

Frantzia/Francia

Impéria Films, Société Nouvelle de
Cinématographie, Les Productions
Georges de Beauregard

Jean-Luc Godard (Istorioa/Historia:
François Truffaut)

Raoul Coutard

Martial Solal

Jean-Paul Belmondo, Jean
Seberg, Daniel Boulanger, Henri-
Jacques Huet, Roger Hanin, Jean-
Pierre Melville, Jean-Luc Godard

90'

Bogart miresten duen zinema-figurante ohia da Michel Poiccard. Parisa joateko asmoz Marsellan auto bat lapurtu ondoren, poliziaren motor-gidari bat hilko du ustekabeen. Batere erruduntasun-zantzurik gabe, bidaiatzen jarraituko du. Parisen, lagun bati dirua lapurtu eta gero, Patricia-ren bila hasiko da, gazte burges amerikar bat, idazlea izan nahi duena eta Eliseoko Zelaietan *New York Herald Tribune* saltzen aritzen dena; Sorbonan matrikulatu eta egunkari horretan idaztearekin ere amesten du. Amerikan ezagutu ez zuen askatasuna Europan aurkitu duelakoan dago. Michelek ez daki, ordea, polizia bere bila dabilela motor-gidariaren hilketarengatik. *Nouvelle Vague* mugimendua-ren sorrerako film ezagunenetako bat da, eta Martial Solalen soinu-banda mitikoa du, gainera.

Michel Poiccard es un ex-figurante de cine admirador de Bogart. Tras robar un coche en Marsella para ir a París, mata fortuitamente a un motorista de la policía. Sin remordimiento alguno por lo que acaba de hacer, prosigue el viaje. En París, tras robar dinero a una amiga, busca a Patricia, una joven burguesa americana, que aspira a ser escritora y vende el *New York Herald Tribune* por los Campos Elíseos; sueña también con matricularse en la Sorbona y escribir algún día en ese periódico. En Europa cree haber hallado la libertad que no conoció en América. Lo que Michel ignora es que la policía lo está buscando por la muerte del motorista. Una de las películas fundacionales de la *Nouvelle Vague* con banda sonora mítica de Martial Solal.

**Jatorrizko bertsioa frantsesez,
gastelaniazko azpitituluekin.**

Versión original en francés,
con subtítulos en castellano.



UN TÉMOIN DANS LA VILLE

SÓLO UN TESTIGO

 **25** UZTAILA
JULIO

 **TABAKALERA**
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

Aurkezpena | Presentación
Quim Casas*

 **19:00**

 **20** UZTAILA
JULIO

 **BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA**
BILBAO

	Édouard Molinaro
	1959
	Frantzia/Francia
	Franco London Films, Paris Union Films, Société Nouvelle des Établissements Gaumont (SNEG), Tempo Film, Zebra Films
	Édouard Molinaro, Gérard Oury, Alain Poiré, André Tabet, Georges Tabet (Eleberria/Novela: Pierre Boileau, Thomas Narcejac)
	Henri Decaë
	Barney Wilen
	Lino Ventura, Sandra Milo, Franco Fabrizi, Jacques Berthier, Daniel Ceccaldi, Robert Dalban
	89'

Emaztearen erailketak traumatizatutako gizon bat hiltzailearen bila hasiko da, eta hiltzailea emaztearen maitale izan zela jabetuko da. Haren atzetik dabilela, aurkitu eta hil egingo du, baina taxi-gidari batek ikusiko du hilketa. Zigorrik gabe irteteko ahalleginean, lekukoaren aztarnak jarraituko ditu protagonistak. Zinema beltz frantses peto-petoa, Miles Davisen musika ondo ezagutzen zuen Barney Wilen-en soinu-banda ederrarekin.


Un hombre traumatizado por el asesinato de su esposa se aboca a la búsqueda del asesino, que resulta ser un amante de su mujer. En su pesquisa, encuentra y mata al sujeto, siendo su crimen presenciado por un taxista. En su afán de quedar impune, el protagonista se pone tras la pista de este eventual testigo. Cine negro francés de muchos quilates y banda sonora perfecta de Barney Wilen, que ya conocía bien a Miles Davis.

Jatorrizko bertsioa frantsesez, gaztelaniazko azpitituluekin.

Versión original en francés, con subtítulos en castellano.

*** Zinema eta musika kritikaria, eta Donostia Zinemaldiko Hautespén-batzordeko kidea**

Crítico de cine y música, y miembro del Comité de Selección del Festival de San Sebastián



RADIO DAYS

DÍAS DE RADIO

26 UZTAILA
JULIO

TABAKALERA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

Aurkezpena | Presentación
Quim Casas*

19:00

27 UZTAILA
JULIO

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
BILBAO

 Woody Allen

 1987

 AEB/EUA

 Orion Pictures

 Woody Allen

 Carlo Di Palma

 Dick Hyman

 Mia Farrow, Dianne Wiest, Seth Green,
Julie Kavner, Michael Tucker, Danny
Aiello

 88'

1940ko hamarkada da, irratiaurrezko garaia, eta New Yorkeko langile familia bateko kide bitxiak har-gailua uneoro piztuta dutela bizi dira. Musikak, ne-garra eragiten duten irratia-sailek, superheroien isto-rioei, lehiaketek, gizarteko goi-klasearen kronikek eta kirol-izarren legendek beren zorigaitza arintzen laguntzen diete eta garai errepikaezin baten anek-dota-bilduma ederra osatzen dute. Zuzendariaren autobiografiaren oihartzunak dira, jazza eta irratia une berean ezagutu baitzituen Allenek.

Son los años 40, la era dorada de la radio, y los peculia-res miembros de una familia trabajadora de Nueva York viven con el receptor permanentemente encendido. La música, los seriales lacrimógenos, las historias de super-héroes, los concursos, las crónicas de la alta sociedad y las leyendas sobre estrellas deportivas les sirven para ser un poco menos infelices y engarzan un anecdotario nostálgico de una época irrepetible. Ecos autobiográfi-cos de Allen, que descubre el jazz al tiempo que la radio.

**Jatorrizko bertsioa ingelesez,
gatzelaniazko azpitituluekin.**

Versión original en inglés,
con subtítulos en castellano.

* Zinema eta musika kritikaria, eta Donostia Zinemaldiko
Hautespen-batzordeko kidea

Crítico de cine y música, y miembro del Comité de Selección
del Festival de San Sebastián

INFORMAZIO BALIAGARRIA

INFORMACIÓN PRÁCTICA

BILBAO

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO

SALNEURRIAK / TARIFAS

Salgai: www.museobilbao.com web orrian eta museoko leihatilan.

A la venta: en la página web www.museobilbao.com y en la taquilla del museo.

SARRERA | ENTRADA

Orokorra: 3,50 €.
General: 3,50 €.

Museoaren Lagunak: 2 €.
Amigos del Museo: 2 €.

25 urtetik beherakoak: doan (museoko leihatilan jaso behar da sarrera).

Menores de 25 años: gratis (la entrada se recoge en la taquilla del museo).

ZINEMA ARETOA / SALA DE CINE

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA: AUDITORIUMA
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO: AUDITORIO

Museo plaza, 2
48009 BILBAO
T. +34 944 396 060
www.museobilbao.com

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

TABAKALERA

SALNEURRIAK / TARIFAS

Salgai: ticket.kutxabank.es/tabakalera web orrian eta Tabakalerako Informazio Puntuan.

A la venta: en la página web ticket.kutxabank.es/tabakalera y en el Punto de Información de Tabakalera.

SARRERA | ENTRADA

Orokorra: 3,50 €.
General: 3,50 €.

Donostia Kultura eta Tabakalera txartelekin: -%10.

Con las tarjetas Donostia Kultura y Tabakalera: -10%.




ZINEMA ARETOA / SALA DE CINE

TABAKALERA
1 Zinema Aretoa / Sala de Cine 1

Andre Zigarrogileak plaza, 1
Plaza de las Cigarreras, 1
20012 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
T. +34 943 118 855
www.tabakalera.eu

EUSKADIKO FILMATEGIAREN ARGITALPENAK SALGAI GURE WEB ORRIAN

LAS PUBLICACIONES DE LA FILMOTECA VASCA A LA VENTA EN NUESTRA PÁGINA WEB



www.filmotecavasca.com

EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA



YANNICK BELLON

2019

URRIA-ABENDUA
OCTUBRE-DICIEMBRE



TABAKALERA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO
BILBAO

Antolatzailea | Organizador

EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA



Kolaboratzaileak | Colaboradores



BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO